

Donostian, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Lekuona, Villasante, Mitxelena, Irigaray, Arrue eta Oleaga jaun euskaltzaiñak. Labayen, Zugasti, Aresti, San Martin, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jean Elissalde jaun euskaltzaiña il da. Erakutsi bekie bere etxekoei gure atseka-bea.

Mirentxu Moraiz Arrue andereñoaren karta bat irakurri da Tolosako Lizardi taldearen izenean. Eskerrak emoten dituez Euskaltzaindiak Lizardi-ren gorazarrean artu dauen ardureagatik. Bide batez diñoe ia Euskaltzaindiak urtero egingo leukean Lizardi-poesia-sariketa bat urte bakoitzean erri bat aukeraturik sariak partietako. Egin bedi urtero Lizardi-poesia-sariketea eta emon beitez bear direan pausoak datarren urtekoaren zeaztasunek erabagiteko. Alan jakinerazo bekie Lizardi taldekoai. Irigoyen jaunak diño ain zuzen be Tolosa-ko gorazarre aretan egozala berari eta Arrue jaunari Zarauzko batzuk urreratu jakiezala eta esan eutsiela euren errian be egin gura leukiezala Lizardi-ren gorazarrez jai batzuk bertako semea zalako eta Euskaltzaindiagaz tratatu gura leukiela zelan egin. Diño, ori orrela izanik, Zarautzen egin leitekeala datorren urteko sari-partitzea. Alegiñak egin beitez aurrerapidea emoten Zarautzarren gogoari sari-partitzea euren errian egiñik.

Irigoyen jaunak diño Lizardi-taldekoak Bilbora euskal-teatroa emoten eroan daiguzan gura leukiela. Alan esan eutsiela Tolosan egin zan gorazarre egunean. Alegiñak egin beitez errege egun inguruan egin oi dan jaira eroaten.

Jaun berak diño Urkiolan egin dala Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat Bagillaren 13-an. Irurita-n beste bat Nafarroakoa Bagillaren 1-ean. Eta Deban bertako Ayuntamientoak iminitako beste bat bagillaren 11-an. Azkenengo onetara, Ayuntamientoak deituta, juradu egitera Juan M.^a Lekuona, Juan San Martin eta bera joan zireala. Bizkaiko urrengo txapelketak Mungian Garagarrillaren 16-an eta Markiñan Garagarrillaren 18-an egingo direala diño.

Jaun berak diño jakin dauela Bizkaiko Diputaziñoak argitaratu dauen aurtengo presupuestoan berrogetaamar milla peseta agertzen direala Euskaltzaindiarentzat iztegiaren izenean. Joan bedi Bizkaiko Diputaziñoko buruzagiagana eskerrak emoten.

Gipuzkoako Diputaziñoaren ofizio bat irakurri da. Ogetabost milla peseta Euskaltzaindiari emotea erabagi dabe iztegiaren izenean. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen jaunak diño Ondarruako ta Markiñako alkateagaz egon dala eta bakotxak bere errian, Ayuntamentua Euskaltzaindiagaz alkartuta, neska-mutillen artean euskal-sariketa bat egin gura leukiela. Urrengo oiñarri oneik —Markiñan eta Ondarruan be ondo iruditu jakiez— ontzat artu dira.

Euskal-Sariketea Markiñako neska-mutillentzat

1. Euskaltzaindiak eta Markiñako Ayuntamentuak, alkartuta, sariketa bat iminten dabe Markiñako neska-mutillentzat. Zazpi urtetik amaikara edo amabi urtetik amabostera izan bear dituez sariketarako izena emoten dabenak. Aurtengo Abenduaren 8-a baiño leen egingo da egun orretan sariak partidu aal izateko.

2. Markiñako Ayuntamentuak sari ederrak emongo deutsiez sariketara doazanai.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

a) Gitxienez kristiñau dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.

b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta dagoen *Euskal-kantak* liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiñatzaillek guztietatik bat aukeratu daien eta kantauerazo.

c) Esamiña egunean bertan emongo dan *Ipuin-barreka* liburutik zerbait irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Aal dan guztia irakurtea kome-ni da esamiña eguna eldu baiño leen.

d) Esamiña egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da, esamiña eguna eldu baiño leen, kristiñau dotriñatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barriro kopietan ekitea zuzen idazten oituteko.

e) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear izango dira al bait onena izan daiten aukeraturen dan ipuiña.

f) Esamiña egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbait idatzi daian. Itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4. Izenak 1961-gko. Semendiaren 30-erarte artuko dira Markiñako Ayuntamentuan. Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

5. 1961 Abenduaren 8-an partiduko dira sariak, eta aurrerengo gelditu direanak, publikoaren aurrean, dakien zerbait esan edo kantauro dabe.

Ondarruako neska-mutillentzat oiñarriak bardiñak dira. Baiña an sariak Abenduaren 24-an partiduko dira eta izenak Ondarruako Ayuntamentuan emon bear dira.

Aita Villasante-k euskal-gramatikearen bigarren kapitulua irakurri dau. Multi-kopistaz atera eta bialdu bekie euskaltzaiñai arakatu daien.

Etxaide jaunak diño Bagillaren 4-an Zarautzen egon zala bertako erriak Basarri Euskalerriko bertsolarien txapeldunari egin eutsan gorazarrean konbidatua, eta Eus-

kaltzaindiak eskerrak emon bear leuskiozala Zarauzko alkateari gorazarre ori pres-
tau dabelako. Alan egin bedi.

Banco Vizcaya-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Milla peseta emotea eraba-
gi dabe Bizkaiko neska-mutillen artean egin direan esamifñetako sariak geitzeko.
Eskerrak emon bekiez.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.